

«Armintzako lagun bi finalera
heltzea izugarria izan da»



ESTEBAN GAUBEKA
eta ERIK ZUBIRI
Munduko pala-txapelduna
eta txapeldunordea

hirulka

116. zenbakia

2018ko otsailaren 15etik 21era arte

Kalean kontatu ezin direnak

Recuerdos en primera persona liburuan,
Erandioko eta bere bizitzako hamaika pasarte
idatzi ditu Txetxu Aurrekoetxea polifazetikoak.
«Post-frankismoan» zenbait egia zabaldu ezin
darelakoan, ale bakarra inprimatu du.



GETXOKO UDAL-LANGILEAK | 5

BEHARREN BALORAZIOA EGITEARI EKIN DIOTE

Orain dela 30 urteko balorazioa atzean utzi eta garai berrietara egokitzeko konpromisoa eskatu diete langileek udal-agintariei.

BARRIKAKO IBILBIDE BEREZIAK | 6

HISTORIAURREAN MURGILTZEKO BIDEAK

Udalerriko ondare natural, geologiko eta kulturala ezagutarazteko bost ibilbide prestatu ditu Iñaki Libanok.

AURREPROIEKTUA DA ORAINDINO | 8-9

BUTROE IBAIAN GORA DOAN PASEALEKUA

Espainiako Ingurumen Ministerioak oinezkoentzako eta txirringularientzako pasealekua egiten gura du itsasadarrean.

KOMUNIKAZIOKO TALDE KRITIKOA | 10

JAKINTZA ALTERNATIBOA SUSTATU GURA DUTE

Industria kulturalari eta informatiboari kritika egiteko sortu dute taldea, Gizarte eta Komunikazio Zientzietan.



«Post-frankismoa desagertu arte gordeko dut nire liburua»

Txetxu Aurrekoetxea plazagizon erandioztarrak bere memoriak batu ditu *Recuerdos en primera persona* liburuan. Kultura, kirola, politika, Mandela, Castro, errauste-planta eta askoz gai gehiago jorratu ditu. Ale bakarra atera du, egiak gordetzeko garaian gaudelakoan.

TESTUA: IÑIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA ARGAZKIA: HODEI TORRES ▶

Orain dela pare bat hilabete amaitu zuen Aurrekoetxeak *Recuerdos en primera persona*. Erandioiko semeak idatzitako laugarren liburua da. Aurrekoetan isildutako hainbat datu eta anekdota paperera eroan ditu oraingo honetan. Baina emaitza ezin izango duzue irakurri, momentuz.

Zenbat denbora eman duzu zeure memoriak batzen? Ez asko. Denbora batez utzi nuen, *on standby* ipinita, Erandio Kirol Elkartean ardurak nituelako. Baina zuzendaritza albo batera utzita, egunero ekin nion liburuari. Jubilatuta nago eta ez dut beste ezer egiteko. Denera, zortzi edo bederatzhi hilabete izan dira.

Altzaga ikastolaren, kutsaduraren aurkako borrokaren eta Erandioren desanexioaren gainean idatzi duzu aurretik. Oraingo honetan zer kontatu duzu? Horrelakoak azaldu ditut berriro, baina zehaztasun handiagoagaz, aurretik kontatu ez ditudan anekdotakaz. Berbarako, Altzaga ikastolari momentu jakin batean pasa zitzaion data, mailegu bat lortzeko Kreditu Ofizialeko Institutuan (ICO), Madrilen, eta sinadura bat faltsifikatzea tokatu zitzaidan *Correosen*, hainbat anekdota izugarriagaz, posta-motor bategaz Bilboko erdigunetik...

Delituak preskribatuta daudenean? Hori da. Beste adibide bat da zelan eskatu genien ikastolarako laguntza Venezuelako «ugazabei»; ez zuten erantzunik eman. ETari ere es-

katu genion, eta haiek bai erantzun zuten; halere ezin izan zen lortu laguntza hori, kasualitatez gugaz harremana izan zuen militante gixajoa hil zelako istripu batean, eta dirua inoiz ez zen heldu.

Desanexioen gainean ez dago besterik kontatzeko. Dena dago esanda, baina aipatzekoa da orduan EAJgaz negoziatu eta desanexioa lortu genuen lagunetatik ni bakarrik geratzen naitzela. Jose Miguel Barrutia eta EAJren udal-delegatua izan ziren desanexioaren giltza. Izan ere, EAJn ez zeukaten argi egoera eta Bilboko udaletxean, Erandioko batzordean eta tokiko uribatzarretan luzamendutan ibiltzen ziren. Ostera, Jose Miguel Barrutiak oso argi zeukan; EAJren militante oso aktiboa zen Barrutia. Eta, bestalde, udal-delegatuak galdetu zidan: «Zuek zer arraio gura duzue?». Nik erantzun nion: «Francoren eta Primo de Riveraren diktadurak ostutako Erandioko udaltasuna berreskuratzea». Buruz dakit. Udal-delegatua aulkitik altxatu eta esan zidan: «Bilboko Udalaren hurrengo Udalbatzan onartuko da». Eta horrela hasi zen desanexioa.

Politikan eman duzue zure bizitzako zati handi bat. Zelan hasi zinen horretan? Betidanik argi izan nuen zein zen nire herria, gaur egun legez, Estatu espainiarrak menperatuta zegoena. Buru-belarri ekin nion behar egiteari, garai hartan lan egin zitekeen estamentu denetan: auzo-elkartean, kultur elkarteetan, eta atletismo- eta olgeta-erakundeetan. Frankismoaren azken urteak heldu zirenean, jolasten edo militatzen hasi nintzen Eusko Alderdi Sozialistan (EAS), geroago Iparraldeko Herriko Alderdi Sozialistagaz (HAS) batu eta EHAS (Euskal Herriko Alderdi Sozialista) izan zena. Hor ibili nintzen hainbat urte, EHAS HASI (Herri Alderdi Sozialista Iraultzailea) bihurtu arte. HASIn denbora gutxiago eman nuen. Denek jakingo dutenez, herri honetan ohikoak diren liskarrak izan ziren eta HASI utzi nuen; ez nuen berriro ere beste alderdi batean militatu Eusko Alkartasunan (EA) sartu arte. Bizkaiko Idazkaritza Nagusian ibili nintzen, beti legez, beharrean.

Udal- eta foru-politika ezagutu zenituen 1980 eta 1990eko hamarkadetan, hemen eta Gernikan. Zelan bizi izan zenituen? Gernikan oso gogorra izan zen, EAJren eta EAren arteko banaketaren hastapenak zirelako. EAJk ez zigun ematen ezta edateko ura ere, eta hori benetan diot, anekdota bat da. Ura eskatu nuen pilula bat hartzeko, atrietik mozio bat defendatu aurretik, eta Batzar Nagusietako presidentek ukatu egin zidan ura, idatzizko ohar batez: «Hau ez da hotel bat». Beste batean, foru-arau baterako proposamena aurkeztu genuen eta erantzun ziguten: «Erabat ados gaude, baina kontrako botoa emango dugu», aktan dago. Lau urtean, mozio, aurrekontu edo dena delako bat ere ez ziguten onartu. Nire lagunak, Zabala zenak, Malmasingo tunel biak lotzeko proiektua aurkeztu zuen; garai hartan oraindino batu barik zeuden. Ezetz esan zioten, eta hurrengo urtean EAJk aurkeztu zuen, bere aurrekontuetan. Lau urte oso latz izan ziren Batzar Nagusietan. Halere, zer edo zer egin genuen: Zierbenaren desanexioari lagundu genion.

Ihobeko zuzendaria izan zinen geroago. Horren kontura, herrian hainbat jende haserretu zen zugaz. Baina ez horregatik. Erandioko zinegotzia nintzen, eta hor ere ez zidaten mozio bakarra onartzen. Neure buruari agindu nion zortzina mozio aurkeztuko nituela udalbatza denetan, gutxienez lan egin zezaten, eta hala egiten nuen. Bada, mozio horietako bat aurkeztu nuen, errauste-planta Erandion koka zezaten; logikoki, kutsaduraz babesteko orduan zeuden neurrik zorrotzenak proposatu nuen, zehazki Alemaniakoak. Moxio hori izan zen EAJk onartu zidan bakarra. Baina erabaki horrek ez zuen aurrera egin eta lanpostu garrantzitsu batzuk herrian izateko aukera galdu genuen. Konbentzitutako nago kontuak ondo eginez gero kutsadura ez dela zertan sortu. Uste dut erraustea ondo egin daitekeela instalazioak ondo eginez gero. Dioxinak, furanoak, metal astunak eta abar isurtzea eragozteko beharrezkoa den tresneria denak ipiniz gero, automatikoki hori badabil. Beste kontu bat da zelan erabiltzen den. Atzerrian ikusita daukat,

Egilearen aurreko argitalpenak



Altzaga ikastola. 25. Urteurrena. 1968-69/1993-94. Ikastola, biziraupen-eskola

Altzaga ikastolak eta Euskal Herriko Ikastolen Elkarteak argitaratu zuten liburua 1994an, ikastolaren 25. urteurrenean. Edizio bikoitza egin zuten, euskaraz eta gaztelaniaz.



La lucha contra la contaminación. Los sucesos de Erandio 1969 «in memoriam»

Aurrekoetxeak gogorarazi zituen «Gasaren» aurkako mobilizazioak eta Polizia Armatuak Antón Fernández eta Josu Murueta hil zituela. Erandioko Udalak argitaratu zuen lana, 2010ean.



Historia de las anexiones y la desanexión de Erandio con Bilbao

Aurrekoetxeak lehenengo pertsonan kontatu zituen anexioaren aurka Bekoako auzo-elkarteak eta Desanexiorako Komisioak egindako beharrak, 2012ko lan horretan.

Danimarkan esaterako, prozesuko elementuren bat aldatu dela ikusiz gero, momentuan geratu egiten dutela produkzioa. Hori da egin beharrezkoa, hemen egingo ez luketena. Jakina, hemen Aldundiaren eta alderdi politiko jakin baten eskuetan gaude eta ezin izango genuke Danimarkan legez egin. Bestalde, gaur egun ni Gipuzkoako errauste-plantaren aurka nago, ez delako beharrezkoa Gipuzkoan beste bat egitea. Hondakinak Bizkaian erretzera etor daitezke.

Kultur arloan Ibaimendi elkarte eta, zure gogoko beste gai bat, Erandio Kirol Elkarte eta ditugu aipatu. Ez dakit daborduko gogokoa den... Bueno, Ibaimendi elkarte. Lehen galdetu didazu ea zelan hasi nintzen politikan; bada, Erandion ez zegoen ezer, eta orduan gazte aktiboak ginenok erabaki genuen batu eta elkarte bat eratzea. Baina ezin genuen, administrazioak ez zigulako uzten. Hemengo apaiz bik lagundu ziguten; aholkatu ziguten atletismo- eta olgeta-erakunde bat eratzea. Ibaimendi izena Molinuevok, Galdosek eta hirurok ipini genion. Obieta kalean geunden izena asmatu guran eta konturatu ginen itsasadarren eta mendiaren artean geundela; horregatik ipini genion ibaimendi. Orain, ostera, Mendibaiarte deitzen da; aldatu egin dute. Ibaimendin kultur jardura garrantzitsuak egin genituen: lehiaketak, mendi-txangoak, Erandioko jaiak antolatzen ziren... Euskal Herriko otxote-txapelketa bakarra egin genuen bizpahiru urtez, geroago *El Correo Español* hasi zen horrelako beste bat antolatzen, Bilbon, eta gurea pikutara bidali zuten, desagerrarazi arte. Ibaimendi ona izan zen Erandioko nagusientzat ere, balio baitzien bariku arrastietan tabernaz taberna ibiltzeko eta batzar politiko klandestinoak egiteko, hori baitzen garaian tokatzen zena.

Erandio Kirol Elkarteagaz antzera izan zen. Kuadrillan herrian poteatzen geundela, 1965eko egunen batean, Erandio kluba 50. urteurrenean desagertzera zihoala entzun genuen. «Hartuko ote dugu?» galdetu genion elkarri. Hartu genuen eta tokatu zitzaigun kontu garrantzitsu bi egitea: urrezko ezteiak, San Mameseko partiduagaz eta guzti; eta Ategorri futbol-zelai berria eraikitzea, horrek ekarri zituen traba denakaz. Eta orain dela pare bat urte, 50 urte beranduago, nahastu ninduten zuzendaritza-batzordean egoteko berriro ere. Hor ibili naiz urte bi, mendeurrena antolatzen, eta gero utzi egin dut.

Non topa daiteke liburua? Inon ere ez. Esku artean daukadana da dagoen ale bakarra. Hemen idatzi ditut kalean kontatu ezin diren kontu asko! ETAz berba egin dut!

Noiz egingo duzue publiko edukia? Post-frankismoa desagertuko denean, suposatzen dut, kar, kar, kar.

Kopia gehiago ateratzea pentsatu duzue? Atera gura nuen, niretzat eta nire ilobentzat... baina azkenean pentsatu nuen diru asko zela; eta bada. Gura nuen neure bizitza bihotzean gordeta mantentzea, eta badago eginda. Hor dira Mandela, [Ibarrere] lehendakaria, Ategorriren inaugurazioa, nire futbolari-garaiak, Ihoben lortutako zilarrezko Q-a, Nazio Batuen Erakundearen eman ditudan berbaldiak, Fidel Castro... Hiru elkarrizketa egin nituen Komandante zenagaz eta hirurak ditut bihotzean gordeta. Fidel estimatzen nuen. Egun batean beragaz egon nintzen Habanako jauregian egin zigun harrera batean, berak erretzeari utzi eta gutxira galdetu nion: «Komandante, zelan utzi diozu erretzeari zure herrialdeak tabakoa saltzen badu?». Bere erantzuna *ex cathedra* izan zen: «Niri Munduko Osasun Erakundeak tabakoa txarra dela esan dit eta, beraz, nik erretzeari utzi diot». Zur eta lur utzi ninduen. Nire lana Kuban garrantzitsua izan zen, utzi genituen zitrikoen instalazioak muntatuta...

Zertan zabilza orain? Lepoz sartuta nabil genealogia eta genetikaren gaian. Nire DNA ikertzen dabilta AEBetan. Jende gehiagok egingo balu, aukera edukiko genuke egiaztatzeko euskaldunon herria hemen egon dela orain dela 15.000 edo 20.000 urtetik. Beste lan baterako gaia izan daiteke. ◀



Begire nago begire

JOSU ESNAOLA ARANGUREN
Helduen euskalduntzean irakasle

Nola heldu gara gu honaino?

Berba hauek ez dira nireak, Leioako Udalaren webgunetik hartuak baino: «Benetan zer gertatu zen jakitea udal honen betebeharrak da: informazio eskubide bat da Leioako biztanleentzat». 2012an esan zuen hori Udalak, Aranzadi Zientzia Elkarteagaz egindako lanaren harira: *Leioa. Gerra zibila eta oroimen historikoa. 1936-1945*.

Ez da Leioako Udalak Aranzadigaz batera egindako lan bakarra. Otsailaren 1ean *Lurraren bidean* dokumentala aurkeztu zuten Kultur Leioako auditoriumean. Euskal lurraldea zelan sortu zen azaltzen zaigu hor. Aurkezpena, Leioako alkatearen hitzak salbu, euskaraz izan zen, baita dokumentala bera ere.

Nik, jakinguraz, bi mutur horien tartean zer gertatu zen ezagutzeko asmoz, 2001ean Leioako Udalak argitaratu zuen *Leioa. Historian zehar* libururara jo nuen. Eta pena handiz konturatu nintzen euskara eta euskal hiztunen komunitatea aipatu ere ez direla egiten, zeharkako informazio apur bat baino ez: 1620ko hamarkadan Batzar Nagusietako kide batzuk errefusatu egin zituztela gaztelaniaz ondo ez ulertzeagatik, edota 1960ko hamarkadan Elizak euskarazko irakaskuntza bultzatu zuela eta horrela lehenengo ikastola parrokiaren beheko solairuan sortu zela.

Umeak eta hezkuntza atalean ez dio ezelako aipamenik egiten ez historian euskarak eskolan jasotzen debekuei, ezta euskaraz berba egiteagatik umeek jasotzen zituzten zigorrei ere. Migrazioaz berba egiten duenean horrek ekarri zuen paisaia aldaketa aipatzen da, ezelan ere ez Leioako euskal hiztunenganako eragina.

Berriro ere gutxietsia sentitu naiz, berriro ere baztertua, berriro ere ahaztua. Ematen du euskal hiztunon historia existitu ere ez dela egiten, baina hori barik ezin ulertu zelan heldu garen honaino, eta nik ulertu gura dut. Eskubide bat da Leioako biztanleentzat.

LEIOA | Gizarte-laguntzak

Larrialdi-egoeretarako diru gehiago ipini dute



Premiazko egoerei aurre egiteko laguntzen dirua udal-kutxatik ateratzen da osorik. HODEI TORRES

Azken urteotan gora egin du gizarte-laguntzetan banatutako diru-kopuruak Leioan. Bestek beste, txirotasun energetikoa aintzat hartzea eta hipoteka ordaintzeko diru-laguntza bost urtez eskatu ahal izatea dira arrazoi nagusiak.

KEPA UGARTE MARTIARENA ▶

Gizarte-laguntzetan 636.397 euro banatu zituen 2017an Leioako Udalak. Zehazki, Gizarte Larrialdietarako Laguntzetara (GLL) 425.985 euro bideratu zituzten agintari leioaztarrek; horri esker, udalerriko 246 sendiek jaso zuten ustekabeko gastuei aurre egin ahal izateko dirua. Udal-iturriek nabarmendu dutenez, Leioako administrazio publikoak 140.000 euroguz osatu behar izan zuen Eusko Jaurlaritzak emandako 285.767 euroko partida. Hala, Gizarte Larrialdietarako Laguntzetan banatutako diruaren herena leioaztarren poltsikoetatik atera zen; izan ere, bertoko agintariek azaldu dutenez, tokian tokiko Gizarte Zerbitzuak arduratzen dira Eusko Jaurlaritzak emandako dirua banatzeaz.

DIRUA FALTAN. Hala ere, ez da nahikoa izaten, behar duten herritar denei laguntza emateko. Udalaren arabera, «azken urteotan gora egin du arlo honetara bideratutako zenbatekoak». Datuak datu, 2016an, 385.000 euro banatu

zituzten; horietatik 100.000 euro Leioako udal-kutxatik atera ziren. 2015ari dagokionez, Lakuako Gobernuak 353.000 euro ipini zituen eta beste 75.000 euro behar izan ziren. Agintari-leioaztarren berbetan, bi dira Gizarte Larrialdietarako Laguntzetara diru gehiago bideratu behar izatearen arrazoiak: «alde batetik, Eusko Jaurlaritzak GLLak banatzeko araudia aldatu zuen, txirotasun energetikoa aintzat hartzeko. Horrez gainera, urte batetik bost urtetara luzatu zuten hipoteka-maileguak ordaintzeko diru-laguntzak eskatzeko aukera», azaldu dutenez. Laguntzen %24 hipoteka pagatzeko izan ei dira.

ETXEBIZITZA. Premiazko egoerei aurre egiteko laguntzei dagokionez, diru dena udal-kutxatik ateratzen dela nabarmendu dute agintari leioaztarrek; jasotako eskaeretatik %98,65 aintzat hartu dituzte. Hain zuzen ere, horietatik denetatik 117.600 euro (%55) ondokoetara bideratu dituzte: etxebizitzaren mantenua, alokairuko gastuak, berrakurtzea eta etxebizitzara sartzea. Horrez gainera, 21.600 euro eman dituzte hipoteka-maileguak eragindako zorrak kitatzeko.

Diruz lagundutako beste kontzeptuen artean daude oinarrizko beharrianak (beturrekoak, audiofonoa, haginlaria, elikagaiak, jantziak, zapatak...). Horrez gainera, lehen-dabiziko aldiz, eskola-materiala erosi ahal izateko diru-laguntza banatu zuten 2017an; Leioako 19 sendiek jaso zuten. ◀

246

sendik jaso zuten ustekabeko gastuei aurre egin ahal izateko laguntza.

%98,7

Premiazko egoerei aurre egiteko eskaeren %98,65 aintzat hartu dituzte udal-agintariek.

21.600

euro banatu dituzte hipoteka-maileguak eragindako zorrak kitatzeko.

GETXO | Udal- eta toki-erakunde autonomoetako langileak

Lanpostuen balorazioa egiteko prozesua abiarazi du Udalak

Duela 30 urteko balorazioan oinarrituta egiten dute lan Getxoko udal-langileek. Hori dela eta, euren beharrak berrikusteko eta garai berrietara egokitzeko konpromisoa hartzea eskatu diote udal-agintariei.

IKER RINCON MORENO ▶

Getxoko udal- eta toki-erakunde autonomoetako langileek euren lanpostuen balorazioa «behingoz» egitea aldarrikatu dute, beste behin ere. Azkenengo aldia urtaririlaren 31n izan zen, osoko bilkuran. Izan ere, 1987an egindako balorazioa oinarri hartuta egiten dute lan 1.000 behargin baino gehiagok. Karlos Goñi LAB sindikatuko bozeramaileak azaldu duenez, sindikatu guztiek egin dute bat aldarrikapenagaz, «langile denon artean adostasuna dago». Otsailaren hasieran behargin denak batu eta euren aldarrikapenak helarazi zizkieten udal-arduradunei. Hala, joan den otsailaren 13an alde biak bildu ziren. «Badirudi gauzak aurrera doazela. Lanpostuen balorazioa egitea Gobernu-taldearen asmoetan dago eta esan digute zirriborroa eta hasierako dokumentuak garatuta dituztela», jakinarazi du Goñik. «Oraindino ez ditugu txosten horiek ikusi, baina, seguruenik, martxoan izango den negoziazio-mahaian aurkeztuko digute dena, eta orduantxe hasiko gara dokumentazioa negoziatzeko», gaineratu du. Bilera horretatik itxaropentsu irten dira udal-langileak, «denontzat eskatzen dugu lanpostuen balorazioa, eta Udala horretarako prest dago». Epeei dagokienez, ez dago ezer ziurrik, baina langileek argi daukate: «Datorren urtean hauteskundeak izango dira, eta aurten ganorazko prozesurik egiten ez bada, ez dakit zerbait ezagutuko dugun epe laburrean».

LANPOSTUEN BALORAZIOAREN ZERGATIA. Udal-langileek azaldu dutenez, Udala «eskema zaharrei ainguratuta» dago, «eta horrek ez digu balio». Besteak beste, lanpostuen balorazioagaz langileen organigrama bat osatzea aldarrikatu dute, bakoitzari dagokion funtzioa azaltzeko. «Hori kudeaketarako oso baliagarria da, denontzat». Modu horretan, gainera, «azken urteotan galdutako erosketa-ahalmena berreskuratzeko» aukera egongo



Lanpostuen balorazioa egitea aldarrikatu zuten urtarileko osoko bilkuran.

«Egunerokoan agertzen diren arazoak sarritan kanpotik ez dira nabaritzen, baina egon badaude»

dela aldarrikatu dute, kategoria eta lanpostu desberdinen arteko diferentzia areagotu barik. Izan ere, soldatei begiratu gero, inguruko udal-langileenak baino txikiagoak direla salatu dute.

GOBERNU-TALDEAGAZ LORTUTAKO AKORDIOA. EH Bilduk gogoratu duenez, 2016an egindako akordio politikoan lanpostuen balorazioagaz hastea jaso zen. Hala ere, horretarako lehen oinarritzko urratsak egin diren arren, orain arte prozesua geldirik egon dela salatu du koalizio abertzaleak. Hori dela eta, udal-langileen aldarrikapena babestu du EH Bilduk, «eta bat egiten dugu abiarazi duten dinamikarekin»; azaldu dutenez, lanpostuen balorazioa «lehen urratsa izango da», langileen berregituraketa, eraginkortasuna eta lan-baldintzen eguneraketa gertatzeko. «Balorazioak konponduko du, esaterako, udal-euskaltegiko langileek pairatzen duten diskriminazioa. Lan balorazioa udal-kudeaketaren eraginkortasuna hobetzeko urratsa da. 31 urte igaro dira baloraziorik egin barik; hala, larritzat jotzen dugu urteetan egon den erantzukizun eza», iragarri dute. ◀

Kooperatibista agurgarria:

Getxon, 2018ko otsailaren 7an

2018ko otsailaren 21ean, asteazkena, Ikastolako egoitzan (Arene Azpi 15) BATZAR NAGUSI ARRUNTA egingo dugu, lehenengo deialdia 19:00etarako eta bigarrena 19:30etarako delarik.



GAI ZERRENDIA

- Bi bazkide izendatu, batzarreko akta onets dezaten.
- 2016ko irailaren 1etik 2017ko abuztuaren 30era doan ekitaldi ekonomikoaren Urteko Kontuen eta gizarte kudeaketaren onarpena, horrela badagokio.
- 2016ko irailaren 1etik 2017ko abuztuaren 30era doan ekitaldi ekonomikoaren Urteko Kontuetatik ondorioztatzen den emaitzaren aplikazioa, horrela badagokio.
- 2017ko irailaren 1etik 2018ko abuztuaren 30era doan ekitaldi ekonomikoaren aurrekontuaren aurkezpena, horrela badagokio.
- Kooperatibarako sarrera kuotaren onarpena.
- San Nikolas Ikastola Hezkuntza Koop, HIRUKA Koop. Elk.-ko bazkide erabiltzaile izateko prozedura hasteko proposamenaren onarpena, hala badagokio. Estatutuen 23. artikulua, 2.atala.
- Artezkaritza Batzordearen antolaketa eta egitasmoak.
- Galdera eta erreguak.

Oharra: Urteko Kontuen txostena eta Auditoretza txostena eskuragarri izango dituzue otsailaren 9tik aurrera ikastolako Alexia plataformako Galeriak atalean.

Zunbeltz Fullaondo
ARTEZKARITZA BATZORDEKO LEHENDAKARIA

BARRIKA | Iragana ezagutzeko bost ibilbide



Historiaurrean murgiltzeko

1

Zabaletxe

Ibilbideak 2.415 metro ditu, Elexaldetik Zabaletxe baserrira arte. Bertan silex harrobia ikusi ahal izango da.

2

Kurtzio

Elexaldetik abiatuta, 1.440 metroko bidea da. Horretan, lurmuturrak eta estratu geologikoak ezagutuko dituzte.

3

Hondartza

Hareatzara ailegatzeko, 1.428 metro ibili beharko dira. Silexa zelan osatu zen jakinaraziko dute.

4

Muriola

Kalara arte, 1.500 metro ibili beharko dira. Neolito garaiko kultura eskualdera heldu zeneko aztarnak ikusiko dira.

5

Aranbaltza

2.020 metroko ibilbidea da, Aranbaltzako basora ailegatzeko. Aztarnategia eta Lastarri errota ikusiko dituzte.

Barrikako ondare arkeologikoa, geologikoa eta kulturala ezagutarazteko bost ibilbide proposatu ditu Iñaki Libanok. Horiek denak biribiltzen dabil orain, baina Aste Santurako baten bat martxan ipintzea aurreikusi du.

TESTUA: IKER RINCON MORENO INFOGRAFIA: ARTEFAKTO ▶

Jakina da Uribe Kostak ikaragarriko ondare arkeologiko, geologiko eta kulturala duela; hala ere, adituek diotenez, oraindik ez da hori dena behar bezala ikertu, ezta gizarteratu ere. Iñaki Libano Edestiaurre Arkeologia Elkarte kide barrikoztarrak urteak daroatza eskualdeko inguruak arakatzen, eta garrantzi handiko hamaika aztarnategi aurkitu ditu bertan, Barrikan batez ere: «Kantauri isurialdean historiaurreko aztarnategi gehien dituen lekua da Barrika», azaldu du. Leku horien garrantzia azpimarratu gura du adituak; hori dela eta, jendeak horren nondik norakoak bertatik bertara ezagutzeko bost ibilbide proposatu ditu. Iragarri duenez, oraindik horiek denak biribiltzeko lanean dabil, Barrikan Udalagaz batera; Aste Santurako horietako baten bat martxan ipintzea aurreikusi dute.

Ibilbide horiekaz historiaurreko aztarnategiak ezagutarazteaz gainera, inguruko aberastasun geologikoa eta kulturala ere ikusarazi gura da. Horretarako, proposatutako ibilbide denetan gaiari lotutako adituren batek ere parte hartzea gomendatu du Libanok, gidari lanak egiteko. Modu horretan, «kostaldeko bide ikusgarriez gozatzearaz gainera, horietan parte hartzen dutenek orain dela 200.000 urte osatutako guneak zelan eta zer dela-eta osatu ziren ezagutu ahal izango dute». Izan ere, Barrikan historiaurreko askotariko kulturak ikus daitezke, Behe Paleolitik (gizakiaren garairik zaharrena) erromatarren garaira arte. Modu berean, Libanoren ustean «oso garrantzitsua» da parte-hartzaileek jardunaldi horietan elkarri eragitea. Horretarako,



«Kantauri isurialdean historiaurreko aztarnategi gehien dituen lekua da Barrika»

IÑAKI LIBANO
EDESTIAURRE ARKEOLOGIA
ELKARTEKO KIDEA

ibilbideen amaieran askotariko jarduera praktikoak proposatu ditu, hala nola suharriaz sua egiten ikastea, propulstzaileak lantzak botatzea edo silexa lantzea.

SILEX-HARROBITIK ERROTARA. Iñaki Libano barrikoztarrak proposatutako bide denek dute abiapuntua Elexaldeko plazan. Lehenengoa Zabaletxe baserrira artekoa da. Bidean, historiaurreko gizakiek erabiltzen zuten silex-harrobia ikusi ahal izango da, baita Barrikan flyscha ere. Libanoren arabera, Zabaletxe interes handiko lekua da inguruko historiaurrea ezagutzeko. Joxemiel Barandiaranek arakatu zuen 1959an, eta aztarnategia aurkitu zuen han. «Kalkolito garaiko hainbat zantzu aurkitu zituen, orain dela 40.000 urtekoak». Bigarren ibilbidean, ibiltariak lurmuturrak eta bertako estratu geologikoak ezagutuko dituzte. Modu berean, Margarita Muñozek 80ko hamarkadan egindako indusketak ikusi eta horren nondik norakoak azalduko dituzte. Kurtzion, gainera, udalerraren eta inguruko aztarnategi denek ikuspegi orokorra edukiko dute. Hirugarren proposamenean, itsas-sedimentuen estratuek osatutako flyscha ezagutaraziko dute. Silexa zelan osatu zen ikusi ahal izango da, baita material hori zelan lantzen zuten ezagutu ere. Laugarren ibilbidean, Muriola kalara hurreratuko dira ibiltariak. Han, historiaurreko artzainek erabiltutako kokalekuez berba egiteko aukera egongo da; izan ere, Neolito garaiko kultura eskualde osora hedatu zen, baita Muriolara ere, orain 65.000 urte. Azkenik, bosgarren aukeran, Aranbaltzako basora hurreratuko dira ibiltariak. Bertoko zuhaitzak ikusteaz gainera, Aranbaltzako aztarnategia ezagutu ahal izango da, azken lau urteotako emaitzen garrantzia azaltzeko. Ondoren, Urgoso ibaiko ibilguari jarraitu eta Lastarri errota erroango du bideak. Antzina, uraren indarra erabiltzen zen han irina egiteko. Errota hori ezezaguna da askorentzat, baina oso ikusgarria da, ura hartzeko azpiegitura osorik daukalako, besteak beste. ◀

BERANGO | Gu inGUru! egitasmoa

Gazte ekimenen erakusleihoa, ingurumena ardatz hartuta

Uribe Kosta osoan lehen sektoreari eta jasangarritasunari lotutako gazteen proiektuen zerrenda egiten dabil Berangoko Gazte Mahaia. Egitasmoak ikusarazi eta elkarregaz harremanean ipintzea da helburua.

UNAI BREA ▶

Daborduko urte eta erdiko ibilbidea egin duen arren, Gazte Mahaia behar bezain ezaguna ez dela aitortu digu Maite Mentxaka berangoztarrak. Hainbat ekimen egin dituzte eta gehiago dauzkate gogoan; «baina astiro joan behar gara, lehenengo Mahaia bera ezagutarazi behar dugu-eta», diosku.

Mentxaka da proiektuaren dinamizatzailea eta, honenbestez, bera dabil Mahaiaren azken asmoa aurrera ateratzen: Gu inGUru!. Labur esanda, Berangon eta Uribe Kosta osoan gazte jendeak bultzatutako proiektuak ikusarazteko plataforma bat da Gu inGUru!, beti ere lehen sektoreari eta jasangarritasunari lotuta. Hobby hutsagatik martxan ipinitako egitasmoak izan daitezke, edo enpresak, edo elkarteak, edo... «Baliteke afizioz hasitako zerbait izatea, baina ikusaraztea lortzeki esker sus-tatzaileei merkatuan sartu eta diru apur bat eskuratzeko aukera ematen diena; hala bada, ondo etorri!», dio Mentxakak. Proiektuen sortzaileak gazteak izan behar direla diogunean, 35 urtetik beherakok izan behar direla esan gura dugu.

IKUSARAZTEKO BEHARRAK BULTZATUTA. Berangoko Gazte Mahaia egindako tailerren bitartez proiektu interesgarri asko ezagutu dituztela azaldu digu Maite Mentxakak. Horiei oihartzuna emateko premia sentitu, eta hala erabaki zuten Gu inGUru! sortzea. Momentuz, eta Mahaia bera ezagutarazteko asmoa behar bezala bete bitartean, web bidezko proiektuen katalogoa baino ez da izango, otsailean osatuko dutena. «Ingurumenarekin konprometitutako gazte ekimen asko dago; gure nahia da horiek topatu, zerrendatu, ikusarazi, proiektu berriak hauspotu eta elkarregaz behar egin dezatela erraztu».

Lerro hauek idazteko momentuan zortzi proiektu daude Gu inGUru!-ren katalogoan. Horietako batzuk elikagai ekoizpena-



Gu inGUru!-ko katalogoan ageri diren Txaramela eta Olatxuko Laboreak egitasmoen saltokia, azoka batean. ARAMANDREA

Berangotik Uribe Kosta osora

«Gure oinarria Berango izan arren», Maite Mentxakak argi dauka Uribe Kosta osoko gazte proiektuen berri jasotzea izan behar dela Gu inGUru!-ren helburua, gaur egun dagoen mugikortasunagaz «herria» esatea «eskualdea» esatearen parekoa da-eta. Orain arte jaso dituzten proiektu gehienetan, izan ere, herri bat baino gehiagoko pertsonak dabiltza, eta kasu batzuetan Uribe Kostatik kanpokoak ere, bertokoakaz batera.

ri lotuta daude. Berbarako pasta agroekologikoa egiten duen Txaramela, bertoko barazki otzarak saltzen dituen Zabale, eta marmeladak, kremak eta pateak modu jasangarrian ekoizten dituen Olatxuko Laboreak. Tipi Rojo elkarteak ere marmeladak egiten ditu, ukenduakaz batera.

NEKAZARITZA BAKARRIK EZ. Oso bestelako ildoetatik jo dute zerrendako beste batzuek. Aipatzekoa da, berbarako birziklatutako materialakaz, eta batez ere skate zaharrakaz, musikatresnak egiten dituen Borja Arbaiza. Beste batzuk bio-eraikuntzan, serigrafian eta liburu trukeen arloetan dabiltza. Ikus daitekeenez askotariko eskaintza dago daborduko, zerrenda hasi berria izan arren. Izan ere, Gu inGUru!-n lekua eduki dezakete gai hauetako edozein modu transbertsanean lantzen duten proiektu denek: lehen sektorea, iraunkortasuna, bio-eraikuntza, hezkuntza, energia berriagarriak, ingurumena, natura eta agroekologia. Baldintza, argi geratu denez, gazteek martxan ipinitakoa izatea da. ◀



AIXERROTA BHI IKASTETXEA

DBH: B eta D ereduak + ikasgaiak ingelesez
 DBH 1: Natur zientziak (Euskara/English)
 DBH 2: Matematika (Euskara/English)
 DBH 3: Fisika eta Kimika (Euskara/English)
 DBH 4: Matematika eta Musika (Euskara/English)

BATXILLERGOA: D ereduak + ikasgaiak ingelesez

- Zientzia modalitatea
- Giza eta Gizarte zientzietako modalitatea

SAT/ZIG: Zeregina ikasteko gela

INFORMAZIO ▶
 Santa Marina Haitza 14
 48993 GETXO
 944 911 786
 www.aixerrota.hezkuntza.net



ESKOLA-ERREFORTZU ZENTROA

CENTRO DE REFUERZO ESCOLAR

TDAH eta dislexia tratatze lanean esperientzia dugu.
 Experiencia trabajando con TDAH y dislexia.

**LEHEN HEZKUNTZA / PRIMARIA
 DBH / ESO
 BATXILLERGOA / BACHILLERATO
 SELEKTIBITATEA / SELECTIVIDAD**

• TALDE TXIKIAK
 • BANAKAKO ARRETA,
 JARRAIPENA eta EGOKITZAPENA
 • AZTERKETEN PRESTAKETA

634 721 181 academiavillamonte@gmail.com Villamonte kalea • ALGORTA

Ibaian gora eginez, naturan e



Espainiako Ingurumen Ministerioak oinezkoentzako eta txirrindularientzako pasealekua egin gura du Butroe itsasadarren alde bietatik; horrez gainera, ideia da itsas kirolak sustatzea inguru horretan ere. Momentuz aurreproiektua baino ez da, eta iradokizunak egin daitezke.

TESTUA: IKER RINCON MORENO INFOGRAFIA: ARTEFAKTO KALE-GALDEKETA: KERMEN SANTIAGO ALKORTA ▶

Butroe itsasadarren alde bietan pasealeku bat egin gura du Espainiako Ingurumen Ministerioak. Oinezkoentzako eta txirrindularientzako ibiltoki berriak 12 eta 15 kilometro arteko luzera izatea dago aurreikusita, Plentziako metro-geltokitik Arbinako presara arte. Hala, egitasmoak Plentzia, Barrika, Gatika, Lemoiz eta Gorliz udal-mugarteak zeharkatuko ditu. Proiektua egikaritu aurretik, hainbat alternatiba plazaratzen dituen txosten sakon bat aurkeztu du Civiliza Ingenieria S.L.P. enpresak. Ibilbidea 10 zatitan eta 27 azpi-zatitan banatu dute eta, denera, 60 alternatiba aurkeztu dituzte, aurkitutako arazoei irtenbide bat edo beste emateko. Horietatik denetatik, ikerketak ibilbide oso bat proposatu du, zirkularra, alternatiben efektibotasun gradua, irisgarritasuna, segurtasuna, ingurumen inpaktua, kostua, zailtasun teknikoak eta lur-eremuen erabilgarritasuna kontuan hartuta. Pasealekua egiteko aurrekontu osoa 1,5 milioi eurokoa da, BEZa barne.

Ikerketa ikusgai egon da egunotan Plentziako Udalaren koptegian. Hala, herritarrek aurreproiektu horren gaineko iradokizunak helarazi ahal izan dizkiote Gobernu-taldeari. David Crestelo Plentziako alkateak azaldu duenez, proiektuari lotutako ideia denak kontuan hartuko dituzte, «agian ez datoz bat guk proposatuko dugunagaz, baina Itsasertz Mugarteari helaraziko dizkiegu ideia horiek ere». Cresteloren berbetan, Plentzia-

Ingurumen-baldintzak

Kutsadura

Akuiferoen kalteberatasuna txikia da itsasadarren ondoko guneeetan. Ikerketaren ipar-eta hegomende-eremuetan kalteberatasun maila, aldiz, ertaina da. Gainerako lekuetan arazorik ez dagoela ondorioztatu dute.

Fauna eta flora

Butroe itsasadarrean Hegaztientzako Babes Bereziko Eremua (HBBE, 35), hegazti-fauna babesteko eremua eta itsas-espezioen babeserako eremua daude, besteak beste. Desagertze arriskuan eta babestuta dauden 22 espezie ere aurki daitezke inguruotan, hala nola ur-ipurtatsa (*Mustela lutreola*). Horrez gainera, balio berezia duen apioa (*Apium graveolens*) ere aurki daiteke bertan.

ko Gobernu-taldeak «orokorrean» ontzat hartu du pasealekua egiteko ideia, «nahiz eta planteamendu askoren kontra egon». Iragarri duenez, alternatiba batzuek hainbat zerbitzu publikoren gabeziei irtenbidea emango diete. Berbarako, futbol eta errugbi zelaietara joateko bideak egitea: «Horietara heltzeko espaloia beharrezkoa da, eta txostenak horietatik aurreikusten ditu». Hala ere, beste hainbat proposamen ere baztertu gura dituzte, hala nola Junkera aldean planteatutakoa. «Argi eta garbi, guk esango dugu GR280a konpondu behar dela. Ez du zentzurik Junkera inbaditzea bide berriak egiteko, mantendu dezagun dagoeneko eginda dagoena». Modu berean, ikerketak gomendatzen duen bidearen gehienezko zabalera nahikoa ez dela uste du udal-agintariak, «2,5 metrokoa izan beharrean, hiru metrokoa izan behar dela uste dugu, oinezkoen eta txirrindularien segurtasuna bermatu ahal izateko». Uribe Kosta-Butroe biotopoa proposamenean agertzen dena ere kontuan hartu behar dela argi du Crestelok, «alternatiba batzuk saihestu behar diren edo ez aztertu beharra dago, ingurumena behar bezala babesteko».

Itsasertz Mugarteak hilaren 19ra arte eman dio epea Udalari egitasmoaren gaineko alternatibei dagokion txostena entregatzeko. Hala, aurreproiektuak aurkeztutako alternatiba denak aztertzen dabilta egunotan udal-arduradunak, puntuz puntu. «Lehenengo fasea da hau; gerora, proiektua bideratzen dagoe-

ta kirolean murgiltzeko bidea



60 ideia




Plentziako metro-geltokiaren ondoko oinezkoentzako zubitik Arbinako presara arteko ibilbidea egiteko 60 alternatiba proposatu ditu aurreproiektuak.

3 zubi

Daborduko dauden bi zubiez gainera, itsasadarraren alde biak lotzeko hirugarren pasarela bat egitea aurreikusi dute, Isuskitza auzunearen ondoan edo Arbinako presaren gainean. Azkenengoa egitea proposatzen du ikerketak.

2,5 metro

Pasealekuak 2,5 metroko zabalera izatea proposatzen du ikerketak. Udalak 3 metrokoa izatea gura du, oinezkoen eta txirrindularien segurtasuna bermatzeko.

-  Ikerketak proposatutako ibilbidea
-  Balizko bide alternatiboak
-  Proposatutako hiru zubiak

nean, herritarrek informatzeko prozesu parte-hartzaile bat egitea eskatuko dugu», iragarri du alkateak.

ERDIGUNETIK ARBINARA ARTE. Ikerketa-txostenak proposatzen duen ibilbidea 13 kilometro inguruko luzera du, Plentziako metro-geltokiaren ondoko oinezkoentzako zubitik Arbinako presara arte. Azken puntu horretan, gainera, pasealekuaren alde biak lotzeko pasarela bat egitea gomendatu dute. Zubia egiteko lekurik «onena» Isuskitza auzunearen ondoan legokeela azaltzen du ikerketak, azpiegiturari erabilera handia emango lioketelako inguru horretako auzokideek, auzunearen eta hiribilduaren arteko zuzeneko lotura modura: «Gaur egun, biderik motzena errepidetik joatea da, eta lau kilometro baino gehiagoko bidea da hori. Modu horretan, distantzia hori 2,5 kilometrorra txikituko litzateke». Ikerketak, baina, ikuspegi tekniko eta ekonomikoengatik, zubia Arbinako presaren gainean egitea gomendatzen du. Bideei dagokienez, daborduko existitzen direnak erabiltzea aurreikusi dute, «ekintzak minimizatze aldera». Dena dela, dagokion zatia arabera, modu batean edo bestean jarduteko proposamenak egin dituzte. Berbarako, ingurumen-inpaktua murrizteko, inguru natural sentiberenak saihesteko bideak proposatu dituzte arduradunek, hala nola Arkotxa mendiko 6510 Interes Komunitariodun Habitat Naturalean. ◀

Iritzi kontrajarriak: pasealekuaren alde eta kontra

Plentziako Udalak pasealekuaren aurreproiektuaren berri eman zuenetik, askotariko iritziak entzun ahal izan dira han eta hemen. Auzokide asko egitasmo horrek Butroe itsasadarraren ingurumenean eragin ditzakeen kalteez kezka dira; beste hainbatek, ordea, bertako naturaz gozatzeko eta kirolean jarduteko aukera paregabea dela deritzote. Isuskitza auzuneko bizilagunek, euren aldetik, gogotsu hartu dute proiektua, «beingoagatik auzoa eta hiribildua oinezkoentzako bide batez lotzea ahalbidetuko duelako», azaldu du Enrique Zufia Isuskitza Komunitateko presidentea, «urte luzez eskatu dugu hori». Era berean, proposatutako zubia pasealekuaren erdian egitea aldarrikatu du Zufiak, hau da, auzunearen ondoan egotea itsasadarraren alde biak lotzeko.

Herritarrei galdezka



«Oso ondo iruditzen zait, jendea erakarriko du. Neguan herria 'hotza' eta aspergarria da... Hori aldatuko delakoan nago»

MARIA KUILA
PLENTZIA, 18 URTE



«Ez dut uste behar-beharrezkoa denik, baina ondo deritzot. Bizikletaren erabilera sustatzeko bide ona da»

JOSUNE SARRIA
PLENTZIA, 19 URTE



«Ez du zertan txarra izan. Herrien arteko komunikazioa erraztu eta bizitza osasungarria bultzatuko du»

JOSE MARIA LAVEIRA
PLENTZIA, 53 URTE



«Paisaia bere horretan mantentzen bada eta ez badago eraginik ingurumenean, bikain iruditzen zait»

VIRGINIA ORMAETXEA
PLENTZIA, 46 URTE



«Urrats handia dela uste dut. Txirrindulariak segurtasunez ibiliko dira eta istripuak ekiditeko bide zuzena dela uste dut»

JASON FERNANDO
PLENTZIA, 23 URTE



JOSE CASTILLO · IÑAUT GONZÁLEZ DE MATAUKO | Komunikazioko Talde Kritikoak

«Industria mediatikoaren araberrako ikasgaiak ditugu»

Besteak beste, kazetaritza alternatiboa sustatzeko helburua dauka talde sortu berriak. HODEI TORRES

Gaur egungo hezkuntza-eredua eta unibertsitatea bera garaiko sistemaren «erreminta bat» baino ez dira EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko hainbat ikasleren ustez; Kazetaritza, Ikus-entzunezko Komunikazioa eta Industria Kulturala ikasketetan hori aldatu gura dute.

KEPA UGARTE MARTIARENA ▶

Orain dela gutxi sortu dute Komunikazioko Talde Kritikoak, EHUko Leioako campusean. Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko ikasleak diren Jose Castillok eta Iñaut González de Mataukok azaldu dutenez, kolektiboaren aurkezpena egiteko erabili zuten otsailaren 7an egindako ekitaldia; euren esanetan, ikastegi bakoitzean egiten diren ikasketen araberrako talde kritikoak sortu dituzte. Horiek denek Herri Unibertsitatean parte hartuko dute ekitaldiak eta tailerrak eginez.

Zergatik sortu duzue Komunikazioko Talde Kritikoak? JOSE CASTILLO: Orain arte, Herri Unibertsitatea izan dugu: merkatuaren baloreen azterketa baino, beste jakintza batzuk jorratzen dituen erakusleho handia. Gainera, lau edo bost egunez baino ez da egiten. Hala, hori garatzen joateko talde kritikoak sortzeko ideia sortu zen; hau da, merkatuaren baloreetatik at egon eta kritikoak izango den hezkuntza-eredu hori ikasturte osoan garatuko zuten kolektiboak. Fakultate bakoitzean jorratzen diren jakintzen araberrako talde kritikoak sortu dira; berbarako, Gizarte eta Komunikazio Zientzietako Fakultatean bi dauzkagu: soziopolitikaren gainekoa da bestea.

Zein da taldearen helburua? J.C.: Gure taldeak Kazetaritza, Medioen Industria eta Industria Kulturala barnebiltzen ditu. Horien gaineko jakintza kritikoak garatzea da gure helburua:

«Herri Unibertsitatea egiten dugun lanaren erakustokia izango da»



Martxoaren 15ean eta 16an egingo dute Herri Unibertsitate Nazionala, Ibaetako campusean, Donostian. Aurretik, martxoaren 5etik 7ra arte, Leioako campuseko ikasgaiak izango dira. Besteak beste, hainbat gairen gaineko tailerrak egingo dituzte fakultate bakoitzean sortutako talde kritikoek. Herri Unibertsitatea euren lanaren «erakusleho modura» erabili gura dute, kolektibo horietara ikasle gehiago erakarri ahal izateko.

karrerak nola dauden egituratuta aztertuko dugu, eta industria mediatikoa eta kulturala nola dagoen ere bai. Hori izango da gure abiapuntua.

Gaur egungo unibertsitate-eredua kritikatzan duzue? IÑAUT GONZÁLEZ DE MATAUKO: Gaur egungo hezkuntza-eredua eta unibertsitatea bera sistemaren erreminta bat baino ez dira; horren aurrean, graduari berari zein industria kultural eta informatiboari kritika egin nahi diogu, gure ikuspuntutik. Horretaz gain, gaur egun egon daitezkeen alternatibak aztertuko ditugu, baita kazetaritza alternatiboaren funtzioa ere, tresna eraldatzaile modura.

J.C.: Daukagun industria mediatikoa horrelakoa delako daude karrerak horrela egituratuta: irakasgai hauek ematen dira eta ez beste batzuk. Hori aztertu nahi genuen.

Zelan islatu gura duzue kritikotasun hori? J.C.: Taldea hasiberria da oraindik, eta suposatzen dugu Herri Unibertsitatearen barruan garapena izango duela. Bertan, hainbat tailer egingo ditugu ondoko gaiak abiapuntutzat hartuta: komunikazioa eta nazioarteko ordena, nola islatzen diren albisteak nazioarteko komunikabideetan, zinema eta ideologia... Espero dugu hori guztia gure lanaren erakusleho izatea eta jende gehiago erakarri ahal izatea.

Horretaz aparte, aurten, Ikus-entzunezko Komunikazioa eta Kazetaritza karreren analisia egin nahi dugu; eta, ondoren, industria biek nola funtzionatzen duten hausnartzea. Batetik, kazetaritzak gainegitura ideologikoan zein paper jokatzen duen, manipulazio-teknikak, monopolio mediatikoak... Ikus-entzunezko ikasketekin eta zinemarekin gauza bera egin nahi dugu. Horren aurrean, gaur egun dauden alternatibak aztertuko ditugu, eta guk gure aldetik eta Ikasle Mugimendutik horretan nola eragin daitezkeen ere bai. Azken finean, goizago edo beranduago, gu ere kazetaritzaren edo industria kulturalaren parte izango gara. ◀

Euskal Errepublika gogoan



AREETA | Antzerkia Miguel Primo de Riveraren diktaturaren garaian, Gipuzkoako Goierri bizi ziren familia biren bizimodua erakusten digu antzezlan honek. Getxoko Gure Esku Dago taldeak adierazi duenez, gertaera historiko bat azpimarratzen da obra honetan: 1931n, Espainian Bigarren Errepublika aldarrikatu eta berehala, besteak beste, Jose Antonio Agirre alkate getxoiztarrak Euskal Errepublika eta autodeterminazio-eskubidea onesteko mozioa bultzatu zituen udalerrian. Hamasei aktore igoko dira agerlekura.

Antzerkia

Otsailak 15, eguena

Ipuinaren Ordua

18:00 | Algortako kultur etxea | Getxo

Zenbat buru, hainbat liburu saioa, Ana Apikagaz. Euskaraz. Sarrera, doan.

Batzarrak

Otsailak 15, eguena

Jaiak prestatzeko bilera irekia

18:00 | Kultur etxea | Gortiz

Aurtengo Santiago Jaiak antolatzen hasiko dira.

Berbaldiak

Otsailak 15, eguena

Nomada liburuaz berbetan

19:30 | Algortako kultur etxea | Getxo

Aitziber Etxeberria idazlea gonbidatu du Uribe Kostako Irakurzaileen Txokoak. Euskaraz. Doan.

Otsailak 21, eguaztena

Errefuxiatuen drama... guztion ardura!

19:30 | Branka Herriko Taberna | Getxo

Getxoko Ongi Etorri Errefuxiatuak taldeko kidea den Arantza Gutierrezegaz. Sarrera, doan.

Erakusketak

Otsailaren 28ra arte

Rock & roses

Kurtzio kultur etxea | Sopela

Rockaren munduko emakumeen argazkiak batu ditu Unai Endemañok. Sarrera, doan.

Martxoaren 18ra arte

Sokatira 2014-2017

Rekalde Aretoa | Bilbo

Barriek 2018 egitasmoaren barruan, Marta Zelaia Aranbaltza artista urduliztarrak egindako tapiz handia ikusbide izango da. Sarrera, doan.

Ikastaroak

Otsailak 16, barikua

Sukaldaritza: opil beteak

Anton Fernández, 3. behe | Erandio

Ausartzen elkarteagaz. 12 eta 17 urte arteko gazteentzat. Izen-ematea: asteleheneetik barikura, 16:30etik 19:30era, Ausartzen elkarte egoitza.

Musika

Otsailak 15, eguena

Fernando kantautorea

20:00 | Glass taberna (Areeta) | Getxo

Getxon Zuzenean kontzertu-zirkuitua. Doan.

Otsailak 16, barikua

Ongintzako kontzertua

20:00 | San José eliza (Itzubaltzeta) | Getxo

Biotz Alai eta Ondarreta abesbatzakaz. Doan.

Otsailak 18, domeka

Inprobisazio-saioa

19:30 | El Comercio taberna (Areeta) | Getxo

Andrés Isasi musika-eskolako jazz-taldeagaz. Sarrera, doan.

Otsailak 20, martitzena

Txalaparta-topaketa

19:00-21:00 | Azebarri kulturgunea | Getxo

Hilabete bakoitzeko hirugarren martitzenean egingo dute. Sarrera, doan.

Zinema

Otsailaren 17tik 19ra

Tres anuncios en las afueras

20:00 | Kultur Leioako entzungela | Leioa

Filma 16 urtetik gorakoentzat da. Gaztelaniaz. Sarrera: 4,50 euro.

Otsailak 17 eta 18

Oihaneko kuadrilla

17:30 | Kultur Leioako entzungela | Leioa

Adin denentzako animazio-filma. Euskaraz. Sarrera: 3,50 euro.

Otsailak 17, zapatua

Thi Mai, rumbo a Vietnam

20:15 | Kultur etxea | Urduliz

Gaztelaniaz. Sarrera: 3,50 euro.

Otsailak 18, domeka

Canta

18:00 | Berango Antzokia | Berango

Danontzako animazio-filma. Gaztelaniaz. Doan.

Otsailak 20, martitzena

En cuerpo y alma

20:00 | Kultur Leioako entzungela | Leioa

Perseo zineforuma. Filma 16 urtetik gorakoentzat. Gaztelaniaz. Sarrera: 2,50 euro.

Inauteriak ez dira amaitu!

Algorta

Otsailak 16, barikua

17:00 Umeentzako tailerrak, San Nikolas plazan.

18:30 Umeentzako txokolate-edana, San Nikolas plazan.

19:30 Umeentzako disko-festa, San Nikolas plazan.

20:00 Insurrectos taldearen kontzertua, Kasino plazan.

22:00 Karaokea, Kasino plazan.

Otsailak 17, zapatua

11:00 Ipuin-kontalaria, ingelesez, Kasino plazan (euria egitekotan, San Nikolasen), Getxoko Kids&Us hizkuntza-eskolagaz.

12:00 Musikalia Martxing Band, Andrés Isasi musika-eskolako ikasleakaz, Basagoiti Etorbidean.

12:30 Erraldoiak eta buruhandiak, Agurra Dantza Taldeagaz, Algortan zehar.

12:30 Adin denetarako mozerro-desfilea (1. proba), Kasinotik San Nikolasera (euria egitekotan, Telletxetik).

13:30 Inauterietako talde-argazkiak (2. proba), San Nikolaseko frontoian.

15:00 Adin denetarako mozerro-bazkaria (3. proba), San Nikolas plazan. Horrez gainera, kuadrillen guda (4. proba), herrian zehar.

20:00 Lurreko taldearen kontzertua, Kasino plazan.

20:00 Bull Dja (1. saioa), San Nikolas plazan.

22:00 Mozerro-txapelketaren sari-banaketa, San Nikolas plazan.

22:30-01:30 Bull Dja (2. saioa), San Nikolas plazan.

Otsailak 18, domeka

11:30 Umeentzako puzgarriak, San Nikolas plazan.

12:30 Biotz Alai Txiki abesbatza, Kasino plazan.

12:30 Euskal inauterietako kalejira, Agurra Dantza Taldeagaz, herrian zehar.

13:30 Txistorra-jan herrikoia, San Nikolas plazan.

15:00 Euskal inauterietako kalejira-bazkaria, Agurra Dantza Taldeagaz, San Nikolas plazan.

17:30-20:00 Bidean erromeria-taldea, San Nikolas plazan.

Barrika

Otsailak 17, zapatua

18:00-21:00 Mozerro-lehiaketa, nagusien etxean. Parte-hartzaileek egun berean izena eman ahal izango dute. Informazio gehiago: www.barrika.eu

Berango

Otsailak 18, domeka

Luzaideko inauterieren eta joaldunen kalejira, herrian zehar.

11:00 Axxgane.

11:45 Lantzarte.

12:15 Karabigane.

12:45 Landaida.

13:30 Sabino Arana.



Kirolean, helburuak epe luzera



Bizikletaren gainean 20 kilometro eman beharko dituzte Sopelan. BAXURDE TXIKI TRIATLOI TALDEA

Sopelako Duatloia egingo du Hirubi triatloi-taldeak, zapatu honetan. Kirolariek 7,9 kilometro bete beharko dituzte korrikan eta beste 20 bizikletaz. Halako proba bat zelan prestatzen den azaldu du Maite Arraiza atletak.

ÍÑIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA ►

Zapatu honetan ehunka atleta lehiatuko dira Sopelako Duatloia irabazteko. Irteera, helmuga eta trantsizio-gunea edo boxak Sopelako udaletxe aurrean egongo dira, Antonio Aretxabaleta plazan. Duatloia 16:15ean hasiko da handik, emakumezkoen saioagaz; ordu laurden bat beranduago aterako dira gizonezkoak. Proba esprint kategoriakoa denez, batzuek zein besteek, denera 260 atletak, korrikan 5,2 kilometro bete beharko dituzte; ondoren, hogeit hamar kilometroan bizikletaz jardungo dute; eta, amaitzeko, helmugako marrara heldu aurretik, azken 2,5 kilometroko lasterketari oinez aurre egin beharko diote.

Maite Arraiza atleta getxoztarrak (Donostia, 1987) Sopelako Duatloia irabazi zuen 2016an. Aurten, ordea, Arraiza ez da Sopelan izango, Espainiako txapelketetarako sailkatze-proba batez egingo duelako bertokoak. Halere, Arraizak zapatuko bezalako esprint-duatloi bat prestatzeko hainbat aholku erabilgarri eman dizkie HIRUKAko irakurle kirolzaleei. Izan ere, Euskal Herrian egiten diren «gehienak esprint distantzia-koak izaten dira», gogorarazi du atletak.

Berez, hainbat espezialitatetako kirolarik parte hartzen dute, azaldu du getxoztarrak: «Triatloian dabilzan kirolariek askok duatloiak egiten dituzte neguan; duatloia bakarrik egiten duen jende askorik ez dago. Aparte daude atletismotik datozenak; ni atletismotik nator, eta bizikleta ere egiten dut. Triatloian, ez naiz hain trebea». Igeriketaz osatzen dira triatloiak, txirrindularitza eta korrikagaz batera.

Duatloia entrenatzeko, bizikleta- eta korrika-saioak «aparte eta batzuetan batera ere» egitea gomendatu du Arraizak. Horrelakoetan, «lehenengo bizikleta-saioa egiten dut eta segidan ateratzen naiz korrika egitera», azaldu du. Entrenamendu larregi egiteagaz kontuz ibiltzeko aholkatu du: «Triatloi-munduan badelako gehiegi entrenatzen duenik ere, ematen du bi

«Triatloi-munduan bada gehiegi entrenatzen duenik; ematen du hiru kirol direnez, bikoitza entrenatu behar dutela, eta ez da horrela»

«Lanean gaudenok neguan agian ez dugu izaten aukera bizikletaz kalera ateratzeko. Beraz, arrabolean egiten dut saioa, ordubeteko»

«Proba 16:00etan izanda, apur bat lehenago gosalduko nuke, 20 minutuko entrenamendua egin eta eguerdian jango nuke»

edo hiru kirol direnez, bikoitza entrenatu behar dutela, eta berez ez da horrela». Hala, «nik, jende normalak legez, korrikan sei saio egiten ditut astean», egun bat libre utzita. Entrenatzen dituen egunetan, Arraizak «ordu bira, baina lan kontuengatik bizikleta saio bat egin ahal badut kalean, orduan luzatzen naiz eta lau ordura hel naiteke. Halere, neguan lanean gaudenok agian ez dugu izaten aukera bizikletaz kalera ateratzeko. Izan ere, gutxienez ordu bi behar ditut bizikletaren gainean. Hala-koetan arrabolean egiten dut saioa, ordubeteko». Edozein kasutan, duatloi-entrenamendu batean «ordu bi gutxienez egin beharrekoa da», nabarmendu du.

SOPELAKO, DENBORALDIKO LEHENENGO DUATLOIA. Denboraldia hurreratzean, «neguan, denboraldi-aurrekoan, korrika egiteko nahiko lasterketa izaten dela aprobetxatzen dut. Gero bizikletan gehiago ibiltzen joaten naiz eta konbinatu egiten ditut», azaldu du Arraizak. Duatloi baten aurreko astea, baina, berezia da: «Aurreko aste-akabuan egiten dut kalitatezko azken entrenamendu luzea, eta Sopelako kasuan, zapatuan izanik, martitzenera edo eguaztenera arte kalitatezko beste entrenamendu labur bat egingo nuke, korrikan eta bizikletan. Eguenean atsedena hartuko nuke eta barikuan apur bat besterik ez: korrikan 30 minutu edo bizikletan ordubete, gorputza aktibatzeko».

Egunean bertan ere, ezberdina da prestaketa. «Sopelako duatloia arrastian da, ordu oso onean, 16:00etan. Niri gustatzen zait goizean hogeit hamar minutuz korrika ibiltzea gorputza mugitzeko, ordu horietan oraindino apur bat lo zaudelako». Bestalde, bazkariaren eta probaren artean tarte zabala gomendatu du getxoztarrak: «Proba 16:00etan izanda, 12:00etan bazkaldu beharko nuke. Apur bat lehenago gosalduta, nire hogeit hamar minutuko entrenamendua egin eta eguerdian arroza edo horrelako zer edo zer jango nuke».

Larregi ez entrenatzea gomendatu duen legez, Arraizak ohartarazi du lehiaketa-mailako lasterketak egitea ez dela komenigarria aurretik prestaketa bat egin ez duen jendearentzat: «Badira beste proba batzuk, herrikoia goak eta motzagoak, jendea hasi ahal izateko. Hortik abiatzea hobe da. Hasiberri batek ez du zertan helburu gisa ipini lasterketa bat. Helburuak epe luzean jartzea gomendatzen dut». ◀

ESTEBAN GAUBEKA ETA ERIK ZUBIRI | Munduko pala-txapelduna eta txapeldunordea

«Armintzakoak ondo gabiltza harrobi-kontuetan»



Banakakoan ez bezala, binakako txapelketan Zubirik lortu izan du Gaubeka gainditzea. HO DEI TORRES

Esteban Gaubeka Mendizabal (Armintza, 1977) pilotariak bere bosgarren txapela jantzi zuen Munduko Banakako Pala Txapelketan, joan den barikuan. Erik Zubiri Moro (Armintza, 1993) herrikidea izan zuen arerio.

IÑIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA ►

Aspaldiko harremana daukazue zuok biok. Lehia zuzena edukitzea bitxia egin zaizue? ERIK ZUBIRI: Bai, lehendabiziko aldiz jokatu dut Estebanen kontra. Bitxia izan da, baina baita polita ere, aldi berean. Armintza herriko lagun bi finalera heltzea izugarria izan da. ESTEBAN GAUBEKA: Niretzat ere esperientzia berria izan da. Sekula ez gara banakakoan elkarren aurka lehiatu; binaka bai, aldi nahikotxotan daborduko, baina bana-ka ez. Erikek dioenez, herriarentzat egoera berezia eta ederra izan da. Bera sailkatu zenetik, orain dela aste bi, jendeak dena eman du gure alde eta giro dotorea izan da gure inguruan.

Zuen zaleak pozik geratu dira finalagaz? E.Z.: Bai, oso pozik. Frontoira joateko aukera izan zuten denak Bizkaia pilotalekura

Maisua eta ikaslea, elkarri begira

Zorionak eman dizkio Erik Zubirik Esteban Gaubekari, lortu duen bosgarren txapelagatik. «Oso pozik nago berak irabazi duelako», azaldu du gazteak, eta gaineratu du: «Partiduan disfrutatu nuen». Gaubekak, berriz, eskertu du detailea eta Zubiri zoriondu du «egin duen txapelketa izugarriagatik». Txapeldunak gehitu duenez, «oraindino gaztea da, baina prest dago datorren urtean txapela janzteko berriro ere lehiateko. Hautagai sendoa da txapela eskuratzeko».

joan ziren, eta inguruko herrietatik ere haraino hurreratu ziren. Denek animatu zuten eta disfrutatu zutelakoan nago.

Partiduan, 98 minutuan, 499 pilotakada eman zenituzten. E.G.: Partidu izugarria izan zen, batez ere final bat izateko. Esan ohi da finalak ez direla hain politak. Telebista dator eta, ez dakit zergatik, ez da ikusten lehiarik. Ordu luze horren ondoren hilda amaitu nuen; Erikek ere bai, baina ni guztiz leher eginda egon nintzen. Biok zukutu genituen geure buruak. Jendeak partidu zoragarria ikusi zuen. E.Z.: Ia ehun minutuko norgehiagoka izan zen. Binakakoetan ere ez da ematen halakorik; banakakoa izanda, meritu handiko partidua izan zen.

Esteban, pala erdiagaz ere joka daitekeela erakutsi zenuen. E.G.: Partiduaren anekdotetako bat izan zen hori. Zaila izaten da, eta ikuslearentzat gehiago. Guri askotan hausten zaigu pala eta segitzea beste erremediorik ez daukagu. Normalean pilotakada bat edo bi asmatzen dugu; finalean nik hiruzpalau asmatu nituen. Ia ezinezko neukan tantoa egitea, ondo jo arren ez nuelako pilota mugitzen. Hala, lehenago ala beranduago Erikek lortu behar zuen tantoa. Baina polita geratu zen.

Erik, hurrengoan txapelik bai? E.Z.: Baliteke. Txapelketa honetan bezala jokatzu, uste dut irabaz dezakedala txapelen bat.

Miribillako malefizioa apurtuta geratu da? E.G.: Bai, kostatu zait. Aurretik irabazi nituen lau txapelak beheko frontoian izan ziren, eta arantza hori neukan sartuta. Finalerdietan edo finalean ibili naiz azken urteotan; aparteko tentsioa neukan, arantza hori atera eta Bizkaia frontoian txapela irabazteko. Azkenean posible izan da. Gainera, Eriken aurka eta horrelako partidu ederrean izateak ilusio handiagoa eman dit.

Hemendik aurrera zer asmo dituzue? E.G.: Binakakoa hasiko dugu, Mungian. Beste txapelketa garrantzitsu bat izango da. Ez dugu bikote finkorik edukiko eta denok denokaz jardungo dugu. Ea banakako finala errepikatzeko aukera dagoen. E.Z.: Nire kasuan, aurretiko partidu bi jokatu beharko ditut Necolen kontra, txapelketara sailkatzeko. Kanporaketa irabaziz gero ea lor dezakedan binakako txapelketa.

Herrian bada beste gazterik erreleboa emateko? E.Z.: Iñaki Urrutia estreinatu da aurtun. Eskolak eta pilota-elkarteak oso behar ona egiten dute eta uste dut jende gehiago etorriko dela. E.G.: Ados. Ekain Mendizabalek daroa eskola, eta ondo dabil, Orueta ere badago, eta beste batzuk. Unda ere egon zen garai batean. Ez dakit Armintzakook zer daukagun, baina harrobi-kontuetan ondo gabiltza. Ea palari gehiago ateratzen den... ◀

TXIBERRI
edantokia

Frontoi partikularra,
terraza estalia,
bokatak,
artisau-garagardoak,
eramateko tortila osoak
eta askoz ere gehiago.



Gustora egoteko behar duzun guztia!

Aita Gotzon kalea, 4 · URDULIZ · 946.760.715

URDULIZ | Zuhaitz landaketa

Bertoko zuhaitzak landatuko dituzte domekan

Ekologistak Martxan, Ingurumenaren Aldeko Boluntarioen Sarea eta Basauriko Dorretxe Sagarrak taldeek auzolanera deitu dute otsailaren 18rako. Goizeko 09:00etatik bazkalordura bitartean bertoko zuhaitzak landatuko dituzte.



SOPELA | Ludoteka

Otsailaren 28ra arte dago zabalik Sopolako Ludotekan izena emateko epea, Kurtzio kultur etxeko sarreran, Sopolarin udal-bulegoan edo udaletxean.

GETXO | Iker Gallastegi



Ezker abertzaleko militantea zena hilaren 12an zendu zen, 91 urte zeuzkala.

GETXO | Sendi programa

Getxoko Udalak urtebetez luzatu du Egizu Getxo Euskaldun elkarteagaz duen kontratua, Sendi programa antolatzeko eta kudeatzeko.

PLENTZIA | Bizkaiko piragua txapelketa

Denera, 137 gizon-emakumek parte hartu zuten joan den zapatuan Butroe itsasadarrean jokaturako estropadetan. Uribe Kostako hiru talde aritu ziren.

PLENTZIA | Trenaren 125. urteurrena

«Nasarako kontakizunak» egitasmoari ekin diote Plentzian

Udalerriko eta inguruko idazle talde batek trenari lotutako kontakizun kateatuak idazteari ekin dio. Lehenengoa Eduardo Gil Herreroren *Aquel viaje en tren del 68* izan da. Kontakizunak hamabostean behin kaleratuko dituzte.



BERANGO | Kultura

Inguruko sortzaileak batzeko jardunaldia, otsailaren 24an

Berangoko Liburutruk Kultur Elkartek topaketa antolatu du datorren otsailaren 24an, goizeko 11:30ean, inguruko sortzaileak ezagutzeko eta ideiak trukatzeko. Hitzordua, Berangoko Stay and Job egoitzan (Ubaio Bidea, 29).



HAZIAK EMAKUME GAZTE FEMINISTAK | San Valent(hil) Eguna

«Zaindu dezagun geure burua. Utz diezaiozun maitemintzeari eta has gaitezen maitepozten!»



HERRI UNIBERTSITATEA | Martxoak 5-7, Leioako campusean

«Egitarau oparoa izango dugu, hiru egunez hausnartu, eztabaidatu eta jakintza kritikoa kolektibizatzen»

%7,8

Gorlizko aurrekontua 6.939.958,55 eurokoa izango da aurren, iaz baino %7,8 gehiago. Inbertsioei dagokienez, 500.000 euro bideratuko dituzte kirol-pabiloia eraikitzeko.



Iturgitxi iturburua ur barik

«Udalak 100.000 biztanleko udalerrira gura duenez, bost axola dio gure benetako ondare naturala zaintzea»

GETXO BIZIRIK

hiruka

HIRUKA kooperatiba elkarte

Helbidea: Martikoena, 16, 2.a · 48992 GETXO
e-posta: hiruka@hiruka.eus
Posta-kutxa: 171
Telefonoa: 944 911 337
Publizitatea: Idoia Lorente
Erredakzio-burua: Unai Brea
Erredakzioa: Iker Rincon, Kepa Ugarte, Iñigo Fernandez de Martikorena
Argazkiak: Hodei Torres
Testuen orrazketa: Jon Gastelurrutia
Diseinua: Artefakto
Kudeaketa: Ziortza Merino, Idoia Ibarluzea
Kolaboratzaileak: Alazne Palacios, Kerman Santiago
Filmazioa eta Inprimategia: BEPSA
Lege-gordailua: BI-2022-2014
ISSN: 2386-98-95
Ale-kopurua: 8.000
CC-BY-SA

Erakunde laguntzaileak



Bizkaia

foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.

HIRUKAlagunen txokoa

Non dago? Lehiaketa

Producciones Serranori esker, Ralph Towner artistaren ikuskizunaz gozatzeko sarrerak zozkatuko ditugu

Musiketan zikloko kontzertuaz gozatzeko sarrera bikoitza lortu gura baduzu, otsailaren 20a (martitzena) baino lehenago bidali erantzuna, zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hona: administrazioa@hiruka.eus edo 944 911 337.



Otsaileko saria



Masaje lasaigarria, Erandioko Bare Zentroaren ekimenez

Bare Zentroaren ekimenez, sari hori zozkatuko dugu HIRUKAlagun eta bazkide denen artean.

Zozketan parte hartzeko, bidali otsailaren 28a (eguztana) baino lehenago, zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hona: administrazioa@hiruka.eus edo 944 911 337.

Zelan egin HIRUKAlagun?

Webgunean: hiruka.eus/harpidetza/laguna

Idatziz: hirukakoop@hiruka.eus

Deituz: 944 911 337 • 688 812 368

Urtean 35 euroren truke, Uribe Kostako euskarazko komunikazio-taldearen bultzatzailea eta partaidea izango zara.

Abenduaren 13ko Datu Pertsonalen Babes Legearen 15/1999 Lege Organikoaren arabera, erabiltzaileek HIRUKAri emandako datuak fitxategi automatiko batean sartuko dira, erabiltzaileagaz harremanetan ipintzeko eta HIRUKAren informazioa eta publizitatea helarazteko soilik. Erabiltzaileak datuok zuzentzeko edo kentzeko helbide honetara idatzi dezake: hiruka@hiruka.eus

Sudokua

			7					
9	8				7			6
	5			8				
			6			2		
2				1	8	4	5	
	4				9		1	3
6	2	1	4					
		4						
5				7	1			

8			7	9				6
6	5						2	
	7	1		6		5	4	
	1						3	
		6						4
			2	3			7	
		7						
					8			
	8		9	1				2

Soluzioak

Gogoan har egizu 1etik 9ra arteko zenbaki denek agertu behar dutela zutabe, ilara eta azpilauki bakoitzean.

2	9	1	6	3	8	5	4	7
5	6	4	8	2	7	3	1	9
3	8	1	5	4	7	6	2	9
1	7	4	6	2	3	8	5	9
4	7	9	5	1	8	6	3	2
8	3	6	7	9	5	4	2	1
3	8	6	5	9	4	7	1	2
9	4	2	7	1	8	6	3	5
7	5	8	3	6	9	4	2	1
1	6	9	4	3	8	5	7	2

4	1	6	5	7	3	2	8	9
3	7	4	9	1	6	5	8	2
2	1	4	8	5	3	7	9	6
8	4	7	2	5	9	6	1	3
2	6	7	3	1	8	4	5	9
1	3	5	8	6	4	9	2	7
7	5	2	6	9	8	3	1	4
9	8	3	1	4	2	7	5	6
6	9	5	4	1	3	8	2	7
8	4	2	5	7	9	3	1	6

Hitza emanda

Negua

Katarro, gripe, eztul, marranta neguan; laino beltzak finkatu zaizkigu zeruan eta gu gozatzeko gaudenez munduan, hobe genuke egin hartzaren moduan!



DANIEL DE MIGUEL AVECILLA
Getxo



Flashback **Getxo Rugby taldea** 1987-88 denboraldia

KERMAN SANTIAGO ALKORTA ▶

Getxo Rugbyren historian lehenengo emakumezkoen taldea duzu argazkikoa, 20-21 urte bitarteko hainbat algortarrek osaturiko lagunartekoa. 90eko hamarkadan beste neska gazte asko sartu ziren, eta urteek aurrera egin ahala profesional bihurtu zen taldea. 2001ean eta 2008an Espainiako Erreginaren Kopa irabaztea lortu zuen Getxo Rugbyk, baina hori, noski, askoz goroago izan zen. Argazki hau zapatu batean egin zen; entrenamendua hasteko prest zeuden jokalariaik, historia distiratsu baten lehenengo pausoak ematen zebiltzala igarri barik... ◀

ARGAZKIAN:


Goian, ezkerretik eskumara: Miren Mentxakatorre, Igone Alkorta, Elena Cires, Ainhoa Aurre, Bea Lamikiz, Jose Martin *El Negro* (entrenatzailea)

Behean, ezkerretik eskumara: Lorea Gerediaga, Garbiñe Gorrotxategi, Itziar Paz, Elena Casado, Nekane Alkorta



IGONE ALKORTAK UTZITAKO ARGAZKIA

Uribitakora



ALBE

Algortako Bertsolari Eskola

TESTUA
Josu Landeta Egurrola

DOINUA
Urrezko isuri eder gozoa

ARGAZKIA
Hodei Torres

Uribitakoran parte hartu gura duzu?
Bidal egiguzu atal honetan agertzea gura zenukeen argazkia eta bertan ikusiko duzu. ALBEko kideek jarritako bertso eta guzti: hiruka@hiruka.eus

Goi mailako alderdia

Horra eremu bat mailadiz lepo hamaika aldiz zapaldua, horra horma bat sentimenduen idazkiez apaindua, horra zerua itsaso hiritar bat bezala zikindua. Nahiz zoru hotzak inori ez dion zuzenduko lausengua, haren erdian uniformedun pibot tristeek zaindua eroso den banku gune bat dugu guztiz banandua.

Ameriketari munduko errege Washingtongo Etxe Zuria, Madril aldeko Moncloa edo Parisko Eliseo handia, berde, gorri edo urdin jantzidun piztien txakurtegia, jainko faltsuen tenplua edo hautatuen alderdia... Horien denen tankerakoa da bankuon irudia, horiek denek trabatu ohi dute gure sormen emaria.

Kontseilu handiak, biltzar txipiak gure artean dira ugari, erdipurdiko aginte nahia baita gure lehendakari. Elite batzuk dabilta jende ekoizlearen gidari, eta haiek muga jartzen diote ekintzen jarioari. Baimen eskerik gabe kolore alaia eman munduari, gairi dezagun harresi oro, ager gaitzen kantari.